*Iragarkia*

Jendaurrean agerian egoteko epea amaitu eta alegaziorik aurkeztu ez dela ikusirik, Legazpiko Udal-Gorporazioko Osoko Bilkurak, joan den 1994eko otsailaren 9an egin zuen ohizko batzarrean eta Toki Jaurpidearen Oinarrizko 7/85. Legearen 49 eta 70. artikuluetan ezarritakoaren arabera, «Eraikuntzen kanpoko elementuak aldatzeari buruzko Ordenantza» behin betirako onartzea eta oso osorik Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea erabaki zuen.

Legazpi, 1994ko otsailak 10.—Jose I. Elorza Oyarzabal, alkateak.

(190) (1443)

*Eraikuntzen kanpoko elementuak aldatzeari buruzko ordenantza.*

SARRERA

Maiz, etxeen aurpegietan dauden leiho, pertsiana, atarietako ateak, begiratoki edo barandak aldatu nahi izaten dira eta Legazpiko Udaletxeak badu horren berri.

Batzutan, ekintza horiek legez egiten dira, dagokion baimena eskatuz. Beste askotan, zoritxarrez, ez dira baimenak eskatzen eta lanak legez kanpo egiten dira. Horrela egiten denean, eraikuntzaren diseinua desorekatu egiten da eta, egokia den ala ez alde batera utzirik, diseinua baterakorra da, osotasunean eratu den proiektu orokor baten ondorio da; proiektu horrek udalaren onespena jaso zuen bere garaian eta inork ezingo du hobetu bere aldetik egindako aldaketekin, aldaketa horien kalitatea edozein delarik ere.

Baina aldaketa horiek gertatzen dira eta kanpoko elementuak aldatu nahi izateko arrazoiak errespetagarriak izan daitezke: itxiturak, argiak edo materialak aldatzea, egoera txarrean daudelako.

Egoera zein den azaldu ondoren, Udalak, dauden eskariak bideratu nahieran eta guztien interesetara moldatu nahiean, legedi egokia izan behar du, eskariek, legearen eta diseinuaren inguruan sortzen dituzten gatazkak konpondu ahal izateko.

Bestalde eta ildo beretik Udalak jendaurrean azaldu behar ditu aldaketa horiek kontrolatu nahi izatearen arrazoiak, hiritarrak kontzientzia daitezen. Aldaketak, askotan, guztiz apetatsuak izan ohi dira eta banakako arazoak baino ez dituzte konpontzen, herriko diseinuan eragina izanik; Udalak, herriko diseinu orokorra babestu eta hobetzeko beharra du.

Arrazoi horien artean hauek aipatu behar dira: pertsona batek etxearen aurpegiaren zati bat (balkoia, leihoa, konpoko atea, etab.) aldatzen badu, eragin negatiboa izango du etxeko kanpoko itxuran eta hori guztion ondarea da; materiala aldatzeak ez du beti hobekuntza suposatzen, eta hori gertatzen da egurraren ordez aluminioa jartzen denean adibidez, egurrak askotan abantail gehiago baititu; aldaketa asko ez beharrezkoa egoera onean dagoen elementua aldatzen denean adibidez; balkoiak ez dira begiratoki bihurtu behar, planeamenduak onartutako baliapideen nolanahiko gehizte orokorra baitakar et aurreko kontrolak baliogabetzen baititu, proiektu baten garrantzia mugatuz eta Udalari kontrol-arazoak areagotuz.

*Anuncio*

Tras el preceptivo período de exposición pública, sin que se hayan presentado alegaciones, el Pleno del Ayuntamiento de Legazpi, en sesión ordinaria celebrada el día 9 de febrero de 1994, y de conformidad a lo dispuesto en los artículos 49 y 70 de la Ley 7/85 de Bases de Régimen Local, adoptó el acuerdo de aprobar definitivamente la «Ordenanza reguladora de las condiciones de modificación de los elementos de los edificios» y proceder a su íntegra publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Legazpi, a 10 de febrero de 1994.—El Alcalde, José I. Elorza Oyarzabal.

(190) (1443)

*Ordenanza sobre modificación de elementos exteriores de los edificios.*

PREAMBULO

El Ilustre Ayuntamiento de Legazpi no ignora con cuanta frecuencia se producen intentos de modificación de fachadas en sus elementos de carpintería de ventanas, persianas, miradores, barandillas y puertas de portales.

A veces los intentos se realizan legalmente a través de la oportuna solicitud de licencia. En otras ocasiones, desgraciadamente, los intentos se consuman mediante obras sin licencia o ilegales. En este caso el resultado siempre es la alteración desequilibrada del diseño de un edificio que, acertado o no, es un diseño unitario, fruto de un proyecto global concebido como un todo, que ha recibido la aprobación municipal en su día y que nunca puede ser mejorado por intervenciones aisladas, sean éstas de la calidad que sean.

Pero tampoco se puede negar el hecho, ni que éste pueda ser debido a razones respetables y capaces de producir el deseo del cambio en los mencionados elementos: razones tales como un intento de mejorar las condiciones de cierre, iluminación o la de los materiales, desgastados por el uso, etc.

Es por ello que el Ayuntamiento en un intento de encauzar las demandas detectadas y de hacerlas compatibles con los mejores intereses colectivos, debe disponer de una normativa adecuada para resolver los conflictos legales y de diseño que aquellas demandas plantean.

Por otro lado y paralelamente, el Ilustre Ayuntamiento debe hacer públicas para concienciar al ciudadano, las razones que mueven al Ayuntamiento a controlar las, muchas veces, caprichosas iniciativas y soluciones a problemas individuales que afectan al conjunto del diseño urbano, que el propio Ayuntamiento está en la obligación de proteger y mejorar.

Entre aquellas razones están: La de que una modificación parcial e individual de fachada (balcón, ventana, puerta exterior, etc.) produce siempre un impacto negativo, por incidir en el conjunto exterior, que es patrimonio de todos; que un cambio de material no siempre mejora al anterior y ello es evidente en el cambio de madera por aluminio, siendo muchas veces ventajosa la primera; que hay cambios que son innecesarios cuando un elemento está en buen estado; que los balcones no deben convertirse en miradores, porque supone potenciar de golpe, el aumento generalizado e indiscriminado de los aprovechamientos permitidos por el planeamiento, haciendo inútiles anteriores controles, relativizando el valor de un proyecto y abriendo la puerta de incontables iniciativas y problemas de control municipal, etc.

Etxeen kanpoko elementuak aldatzeko egon daitezkeen eskariak bideratzeko eta aldaketa horiek eraikuntzaren baldintza orokorrak hobetu ditzaten, aldi berean bizitzeko egokitasuna hobetuz, honako araudi idatzi da Eraikuntzen kanpoko elementuak aldatzeari buruz.

ERAIKUNTZEN KANPOKO ELEMENTUAK ALDATZEARI BURUZKO ARAUDIA.

*1. artikulua. Esparrua.*

Etxeen aurpegien elementu eta osagaien diseinua aldaketa, materiala, antolaketa eta akaberari dagokie, eta konkretuki leihoei, pertsianei, terrazetako kanpoko ateen eta atariei, barandei, erlaizei, begiratokiei, estalkiei, aterpeei, leihoetako terrazei, sukaldetako aireztapen sareei, gas irteerei eta Gorporazioak deritzon kanpoko beste edozein elementuri.

*2. Artikulua. Bakarreko lanak edo puntualak.*

2.1. Etxeak duen diseinua edo materialak aldatzea debekatua dago, bai elementu bakanak (leihoak, ateak, balkoiak, etab.) bai eraikuntza baterakor identifikagarri osoan edo osotasunean eraiki den eraikuntza-multzoan egiten ez den beste edozein aldaketa.

2.2. 2.1. puntuan salbuespen bat egin behar da: zaharkitu edo istripuz hondatu den edozein eraikuntzan egindako aldaketa, aldaketa horrek, elementu hori, Udaletxeak onartutako baldintzetan egokitzen badu, diseinua eta kolorea mantenduz eta eraikuntza edo eraikuntza-multzoaren armonia kontutan izanik beti ere.

2.3. Pertsona batek eskatutako aldaketak, lehenago legez kanpo egindako aldaketan eragina izango balu, osotasuna aldatuz, elementu horiek aldatu ahal izango dira osotasunaren baterakortasuna lortuz, beti ere Udaletxeak adierazitako baldintzetan.

*3. Artikulua. Eraikuntza osoko lanak.*

3.1. Eraikuntza baten kanpoko aldaketa onartuko da, gutxienez, eraikuntza osoari eta eraikuntzako elementu baterakor guztiei dagokienean, auzoko etxe guztiak berdinak direnean salbu; kasu horietan, Udaletxearen ustez, aldaketa eraikuntza guztietan egin beharko litzateke. Gutxienezko iharduera unitatea atari batekoa izango da.

3.2. Uniformeak diren auzoetan, San Inazio, San Juan, Arantzazu, San Jose, San Martin eta Udaletxeak deritzon beste edozeinetan, elementu baterakorren aldaketa eraikuntza-multzo osoan egin beharko da. Hala ere, baimena, gutxienez atari bat eman ahal izango zaio baina inoiz ez banakako elementu puntual edo zatikakoei.

3.3. Osotasuneko elementuen aldaketak sendespena duen Arkitektu Gorenaren proiektua beharko dute.

3.4. Osotasunean egindako aldaketek ez dituzte diseinuaren ezaugarri orokorrak aldatuko, ez eta auzoaren edo eraikuntza-multzoaren izaera fisikoa, batez ere arestian aipatutako San Inazio, San Juan eta Arantzazu auzoetan.

Para canalizar, pues, las demandas que puedan producirse en el sentido de modificar elementos de fachada, de forma que los cambios no sólo empeoren los actuales diseños y condiciones generales de los edificios sino que, incluso, puedan mejorarlos, aumentando simultáneamente los niveles de habitabilidad, se redacta esta normativa sobre Modificación de elementos Exteriores de los Edificios.

NORMATIVA DE MODIFICACION DE ELEMENTOS EXTERIORES DE LOS EDIFICIOS

*Artículo 1.º Ambito.*

Afecta al cambio de diseño, material, acabado y disposición de los elementos y componentes de fachadas, cierres y cubiertas de los edificios y concretamente a ventanas, persianas, puertas exteriores de terrazas y portales, barandados, antepechos, miradores, marquesinas, cornisas, cubiertas, rejillas de ventilación de cocinas, salidas de gases y demás elementos exteriores que la corporación en uso de su competencia, considere.

*Artículo 2.º Obras individuales o puntuales.*

2.1. Se prohiben las modificaciones de diseño o materiales existente, en los elementos aislados, (ventanas, puertas, balcones, etc.) y en general todas aquellas modificaciones que no se realicen, como mínimo, en la totalidad de un edificio unitario identificable, o bloque unitariamente concebido y edificado.

2.2. Se exceptúa de la prohibición del punto 2.1. todo cambio realizado por razones de envejecimiento o deterioro accidentado y que reponga al elemento o grupo de elementos en las condiciones que apruebe el Ayuntamiento, manteniendo su diseño y color, siempre teniendo en cuenta la armonía del conjunto del edificio, o bloque.

2.3. Si la modificación individual solicitada afectase a elementos que lo modificaron ilegalmente con anterioridad, alterando el conjunto existente, se permite el cambio de los elementos de tal manera que aquél repusiera la unidad del conjunto en las condiciones que marque el Ayuntamiento.

*Artículo 3.º Obras de conjunto.*

3.1. La modificación de elementos exteriores de un edificio, sólo se autorizará si afectara, como mínimo, al conjunto del edificio y a todos los elementos unitarios del mismo, salvo en los casos de barrios uniformes, en los que, a juicio del Ayuntamiento, la modificación debiera afectar a los elementos de todos y cada uno de los edificios. La unidad mínima de actuación será de un portal.

3.2. En los barrios uniformes y concretamente en los de San Inazio, San Juan, Arantzazu, San José, San Martín y en los que así disponga el Ayuntamiento, la modificación de elementos unitarios será idéntica para todo el conjunto de edificaciones. Sin embargo la licencia podrá otorgarse, como mínimo, para un portal, pero nunca para elementos puntuales individuales o parciales.

3.3. La modificación de elementos de conjunto requerirá proyecto de Arquitecto Superior, visado.

3.4. En todo caso las modificaciones de conjunto nunca deberán alterar las características generales del diseño, ni la personalidad física del barrio o conjunto de edificios especialmente en los ya mencionados de San Inazio, San Juan y Arantzazu.

*4. Artikulua. Begiratokiak eta balkoien itxiturak.*

Balkoiak istea debekatua dago, bakarka nahiz taldean.

*5. Artikulua. Pertsianak.*

5.1. 3. Artikuluan adierazitakoaren kalterik gabe, ez dituzten eraikuntzetan, pertsianak jarri ahal izango dira eta Udaletxeak zehaztuko du pertsiana horien diseinua eta kolorea, 3.4. artikuluan adierazitakoarekin bat.

5.2. Kutxa kanpoko aldeak duten pertsianak jartzea debekaturik dago.

*6. Artikulua. Leihoak, terrazetako ateak eta balkoiak.*

6.1. Diseinu, kolorea eta jatorrizko materialak aldatzeko baimenak emango dira. Material aldaketek arrazoituak egon beharko dute eta, beti ere, diseinua mantendu beharko dute. Diseinu aldaketa beste biderik ez dagoenean onartuko da soilik eta arrazoitua doagoenean.

*7. Artikulua. Etxearen aurpegian aireztapen sareak irekitzea.*

Etxeen kanpokaldeko aireztapen sare eta hedarazleak solairu guztietan berdinak izan beharko dute, gehienez 150 $zm^2$-tako neurria izango dute eta etxearen kanpoko paretak duen kolore bera eta bertikal bera izan beharko dute, distantzikidetasun berdinak mantenduz.

Berogailuen keak isurtzeko sareek aurrez aipaturiko baldintzak bete beharko dituzte eta keen jatorrizko tresnak zirkuito itxikoak izan beharko dute.

Etxeen aurpegietan keak isurtzeko irtenguneak debekatuak daude, horien ordez deflektore egokiak jarriz, etxebizitzetan gas instalazioen oinarrizko Arauei buruzko 1974ko martxoren 29ko Aginduko 2.9. puntuan adierazten denaren arabera.

*8. Artikulua. Estalkiak eta aterpeak.*

Estalki eta aterpeen hegalek, ez du ordenantzak eraikuntzatako onartzen duen sakonera gaindituko.

*9. Artikulua. Atariko elementuak.*

9.1. Atarietako ateen aldaketak, 3. eta 6. artikuluetan adierazitakoari egokituko zaizkie.

9.2. Atari bateko elementuak udal-baimenarekin aldatu direnean, eraikuntza-multzoko gainontzeko atarien diseinu eta material oinarri izango dira.

*10. Artikulua. Baimenik gabeko aldaketak dituzten eraikuntza eta eraikuntza-multzoak.*

Baimenik gabe egin diren aldaketak dituzten eraikuntza edo eraikuntza-multzoetarako eskatutako baimenak, elementu horiek aldatu beharko dituzte ere, komunitatearen gehiengoaren erabakiarekin eta indarrean dagoen jabego horizontalaren araudiaren arabera.

*11. Artikulua. Aldaketa osagabeak eta arau-hausteak.*

Norbaitek arau horiek hausten baditu, Udalak ofiziozko ihardueta egin ahal izango du, egokiak ez diren elementuak botaz, araua hautsi duenaren pentzutan, eta legeak baimendutako isunak jarriko ditu, administrazioabprozeduraren legedi arautzailean agindutakoaren eta hirigintza araupideari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.

*Artículo 4.º Miradores y cierres de balcones.*

Quedan prohibidos los cierres de balcones existentes, sea individual o conjuntamente.

*Artículo 5.º Persianas.*

5.1. Sin perjuicio de lo señalado en el artículo 3º, se autoriza la colocación de persianas en edificios que carecen de ellas fijando el Ayuntamiento diseño y color de acuerdo con lo dispuesto en el Apartado 3.4.

5.2. Quedan prohibidas las persianas de caja exterior.

*Artículo 6.º Ventanas, puertas de terraza y balcones.*

6.1. En principio sólo se autorizan cambios y mejoras que conserven diseño, color y materiales originales. Los cambios de material deberán ser suficientemente justificados y, en todo caso, procurarán conservar el diseño. El cambio de diseño sólo se autoriza en caso extremo y suficientemente justificado.

*Artículo 7.º Apertura de rejillas de ventilacion en fachada.*

Las rejillas y difusores de ventilación en fachada serán iguales en todas las plantas con una sección útil máxima de 150 $cm^2$ e irán pintadas en el color de la fachada y situados en la misma vertical, manteniendo las mismas equidistancias.

Respecto a las rejillas de evacuación de humos de calefacción cumplirán las características señaladas anteriormente y únicamente se autorizarán si los aparatos originarios de los humos son de circuito estanco.

Se prohibe la colocación de elementos salientes de evacuación de humos en fachadas, sustituyéndose los mismos por deflectores adecuados, tal como indica el punto 9.2 de la Orden de 29 de marzo de 1974 sobre Normas Básicas de Instalaciones de gas en edificios habitados.

*Artículo 8.º Toldos y marquesinas.*

El vuelo de toldos y marquesinas no deberá superar la profundidad de vuelos del edificio autorizados por ordenanzas.

*Artículo 9.º Elementos de portal.*

9.1. Las modificaciones de puertas del portal se ajustarán a lo dicho en los artículos 3.º y 6.º

9.2. En los casos en que los elementos de un portal hayan sido modificados con autorización municipal, estas marcarán la pauta de diseño y material para el resto de portales del bloque en que se ubiquen.

*Artículo 10.º Edificios y conjuntos con modificaciones existentes.*

Las modificaciones solicitadas en edificios y conjuntos que contengan cambios y alteraciones puntuales efectuadas sin licencia, vincularán a estos elementos, de acuerdo con la decisión mayoritaria de la comunidad y conforme a la legislación de propiedad horizontal vigente.

*Artículo 11.º Modificaciones incompletas e incumplimientos.*

El incumplimiento puntual o individual de esta normativa podrá permitir la actuación de oficio del Ayuntamiento, procediendo al derribo del elemento o elementos inarmónicos, con cargo al infractor, y asímismo a las sanciones autorizadas por la Ley, actuando de conformidad a lo dispuesto en la normativa reguladora del procedimiento administrativo y en la legislación en vigor sobre la disciplina urbanística.

*12. Artikulua. Azken xedapena.*

Ordenanza hau indarrean jarriko da, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta handik 15 egunera, eta indarrean jarraituko du ondorengo ordenantza batek aldatu edo deuseztatu arte.

*Artículo 12.º Disposición final.*

La presente Ordenanza entrará en vigor a los 15 días de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa permaneciendo vigente en tanto no sea modificada o derogada por una posterior.

---

## LEINTZ GATZAGAKO UDALA

*Iragarkia*

1994ko otsailak 10 datako ebazpenaren bitartez, edonori jakin arazten zaio, ondorengoari dagokiona errolda onetsi dela:

1993ko seigarren bihilabeteari dagokion argindar hornidurraren prezio publikoa.

Aipatutako Errolda Udal honetako Idazkaritzan erakutsia izango da, iragarki hau argitaratzetik hamabost egunetako epean, interesatuek bidezko ditzaketen erreklamazioak aurkez ditzaten, epe horretan zehar.

Guztien jakinerako argitaratzen da, halaber 1994ko otsailak 14tik apirilak 13ra bitarteko astegunetan, biak barne, 1993ko seigarren bihilabeteari dagozkion ordainagiriak borondatezko epean kobratzeko ezarririk daudela.

1994ko apirilak 13ko data agorturik, premiamendu bidez egingo dira biltzapenak % 20ko gainkarguaz.

Leintz Gatzaga, 1994ko otsailak 11.—Alkateak.

(49) (1430)

## AYUNTAMIENTO DE LEINTZ GATZAGA

*Anuncio*

Para el general conocimiento se hace saber que por resolución de fecha 10 de febrero de 1994, se ha aprobado el Padrón relativo a:

Precio Público de suministro de energía eléctrica correspondiente al sexto bimestre de 1993.

Dicho padrón estará expuesto al público en la Secretaría de este Ayuntamiento, durante el plazo de 15 días, para que en dicho plazo puedan presentarse por los interesados las reclamaciones oportunas.

Asimismo, se pone en conocimiento público que durante los días hábiles comprendidos entre el 14 de febrero y el 13 de abril, ambos inclusive, estarán expuestos al cobro los recibos correspondientes al Precio Público de suministro de energía del sexto bimestre de 1993.

Transcurrida la fecha de 13 de abril de 1994, se procederá a su recaudación mediante procedimiento de apremio con un recargo del 20%.

Leintz Gatzaga, a 11 de febrero de 1994.—El Alcalde.

(49) (1430)

---

*Iragarkia*

1994ko otsailak 10 datako ebazpenaren bitartez, edonori jakin arazten zaio, ondorengoari dagokiona errolda onetsi dela:

1993ko laugarren hiruhilabeteari dagokion etxebizatzarako edateko ura, zabor bilketa eta estolderia zerbitzuaren prezio publikoa.

Aipatutako Errolda Udal honetako Idazkaritzan erakutsia izango da, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzetik hamabost egunetako epean, interesatuek bidezko ditzaketen erreklamazioak aurkez ditzaten, epe horretan zehar.

Guztien jakinerako argitaratzen da, halaber otsailaren 14tik apirilaren 13ra bitarteko astegunetan, biak barne, laugarren hiruhilabeteari dagozkion ordainagiriak borondatezko epean kobratzeko ezarririk daudela.

1994ko apirilak 13ko data agorturik, premiamendu bidez egingo dira biltzapenak % 20ko gainkarguaz.

Leintz Gatzaga, 1994ko otsailak 11.—Alkateak.

(50) (1431)

*Anuncio*

Para el general conocimiento se hace saber que por resolución de fecha 10 de febrero de 1994, se ha aprobado el Padrón relativo a:

Precio Público de agua potable a domicilio, recogida de basuras y prestación de servicios de alcantarillado, correspondiente al 4.º trimestre de 1993.

Dicho Padrón estará expuesto al público en la Secretaría, durante el plazo de 15 días a partir de la publicación del presente anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, para que en dicho plazo puedan presentarse por los interesados las reclamaciones oportunas.

Asimismo, se pone en conocimiento público que durante los días hábiles comprendidos entre el 14 de febrero y el 30 de abril, ambos inclusive, estarán expuestos al cobro los recibos correspondientes al Precio Público de agua, basura y alcantarillado del 4.º trimestre de 1993.

Transcurrida la fecha de 30 de abril de 1994, se procederá a su recaudación mediante procedimiento de apremio, con un recargo del 20%.

Leintz Gatzaga, a 11 de febrero de 1994.—El Alcalde.

(50) (1431)